

**PROCESO DE PARTICIPACIÓN PARA LA  
ELABORACIÓN DEL PLAN DE LA DIRECCIÓN  
GENERAL DE CULTURA-INSTITUCIÓN  
PRÍNCIPE DE VIANA**

**VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO KULTURA  
ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOA  
BURUTZEKO PARTE HARTZE PROZESUA**

**SESIONES DELIBERATIVAS  
PLANIFICACIÓN Y GESTIÓN**

**ERABAKITZE BILERAK  
PLANGINTZA ETA KUDEAKETA**

*PAMPLONA, 2 de Noviembre de 2016*

*IRUÑAN, 2016ko Azaroaren 2a*

## **AURKIBIDEA**

<b>1.-SARRERA.....</b>	<b>1</b>
<b>2.-TAILERRAREN HELBURU ETA METODOLOGIA OROKORRA .....</b>	<b>2</b>
<b>3.-PARTE-HARTZAILEAK .....</b>	<b>2</b>
<b>4.-BILERAREN GARAPENA .....</b>	<b>5</b>
<b>5.-LABURBILKETA ETA AGURRA .....</b>	<b>11</b>

## 1.-SARRERA

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzeak Hiritar Parte-hartze prozesua garatzen ari da Zuzendaritzaren Egitasmoa burutzeko. Prozesu hau Maiatza eta Ekaina bitartean antolatu ziren gaikako bilera sektorialekin martxan jarri izan zen, hauek Nafarroako panorama kulturaren sektore ezberdinen informazioa eskaintzea eta iritzi ezberdinak jasotzea helburutzat zutelarik. Behin bilera sektorialekin amaituta, lurraldekako 7 parte-hartze bilera antolatu egin ziren, Nafarroako zonalde ezberdinetan burutu izan zirelarik eta helburutzat Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa Nafarroako lurraldean zehar ezagutaraztea eta iritzi plural eta ezberdinagoak jasotzea zituztelarik.

Prozesuaren azkeneko fasea Erabakitzailea da, zinetarako 4 bilera antolatu baitira gai zehatzen inguruan era sakonagoan eztabaidatu eta erabaki ahal izateko. Txosten hau Azaroaren 2an Nafarroako Artxibo Orokorrean burutu izan zen **“Plangintza eta Kudeaketa”** inguruko Erabakitzeko Bileran jasotakoa biltzen du.

Bilera honetan parte hartzeko deialdia irekia izan zen, deialdia batez ere sormen arloko eta Nafarroako kultura gestoreen ordezkarietara zuzendu izan zelarik.

## 2.-TAILERRAREN HELBURU ETA METODOLOGIA OROKORRA

Plangintza eta Kudeaketaren erabakitze bilerak Nafarroako Artxibo Orokorrean garatu zen 2016ko Azaroaren 2an, 9:30 eta 20:30 orduen bitartean.

Bileran 18 pertsonen parte hartu izan zuten, batez ere Kultura Koordinatzaileak eta Nafarroako herrietako ordezkariak.

Tailerraren **helburuak** ondorengoak ziren:

1. Parte-hartze Prozesua aurkeztea erabakitze fasean.
2. Bi gaien inguruan erabakitzea:
  - Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eta Udaletxeen arteko koordinazioa.
  - Parte-hartzea.

Erabakitze bilerak ondorengo ordena jarraitu izan zuen:

1. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren **agurra eta ongietorria**.
2. **Parte-hartze prozesuaren azalpena** oro har eta **zehazki parte-hartze bilerarena** (arauak, bileraren antolaketa, etab.)
3. **Parte hartze-erabakitze** lanaren talde dinamika.
4. Talde dinamikaren **parte-hartze lana**.
5. Talde lanaren **bateratzea**.
6. Amaiera eta agurra.

Bilera burutu aurretik, deituak izan ziren pertsonen bileraren metodologia azaltzen zen eta aurretik proposamenak bidaltzeko aukera eskaintzen zuen mail bat jaso izan zuten. Azkenik, proposamenaren zehazpenagatik eta honek zekarren zentzua eta koherentzia zirela eta, **José Vicente Urabayenen** proposamena aurkeztu zen, eztabaidatu ziren bi gaietako bat izan zelarik (proposamen osoa erantsia izango da).

Erabakitze bileran landu izan ziren gaiak ondorengoak izan ziren:

### 1. GAIA- KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ETA UDALETXEEN AREKO KOORDINAZIOA

A.- ZEIN ARLOTAN DA GARRANTZITSUAGO ELKARLAN-KOORDINAZIOA?

B.- NORTZUK IZAN BEHARKO ZIREN PARTE BAKOITZAREN SOLASKIDEAK?

C.- KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ETA UDALETXEEN ORDEZKARIEZ GAIN, ELKARLANETAN ZUZENEAN PARTE HARTU BEHARKO ZUTEN BESTE AGENTERIK AL DAGO?

E.- ZEINTZUK IZANGO ZIREN ZUZENDARITZAREN ETA UDALETXEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO BIDE ETA TRESNA EGOKIENAK?

## **2. GAIA- PARTE HARTZEA**

A.- NAFARROAKO LURRALDE EZBERDINETAN KULTURA ARLOEN INGURUKO PARTE-HARTZE PROZESUEI JARRAITASUNA EMAN BEHARKO ZITZAIEN?

B.- LURRALDEKAKO PARTE-HARTZE PROZESUAK LAGUNTZEKO ZEIN TRESNA EZARRI BEHARKO ZIREN?

C.- NORK KOORDINATU BEHAR DITU PARTE-HARTZE PROZESUAK?

Bi gai hauek hiru lan ezberdinetan eztabaidatu izan ziren, ondoren elkarren artean komunean ezartzeko aurkezpen batean.

### 3.-PARTE-HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK	
Izen deiturak	Erakundea
IOSU ROYO GARCÍA	NAFARROAKO DANTZARIEN BILTZARRA
BETISA ANDA ARRUABARRENA	AYUNTAMIENTO DE ALTSASU /ALSASUA
AMAIA IJURRA ARAÑA	ETXARRI ARANAZKO UDALA
XABIER EPALZA	CULTURA PREKARIA
JOSE VICENTE URABAYEN AZPILICUETA	AYUNTAMIENTO DE VILLAVA, SERVICIO DE CULTURA
CARMEN AEROPAGITA GRACIA	AYUNTAMIENTO DE SANGÜESA / ZANGOZA
MARTA GURUCIAGA REPARAZ	AYUNTAMIENTOD DE BERRIOPLANO
NIEVE BELOQUI ROS	AYUNTAMIENTO DE NOÁIN (VALLE DE ELORZ)
VIRGINIA ALONSO APARICIO	AYUNTAMIENTO DE OLAZTI / OLAZAGUTIA
JAVIER GÓMEZ VIDAL	EPEL CASTEL RUIZ – AYUNTAMIENTO DE TUDELA
MANUEL MOTILVA ALBERICIO	EPEL CASTEL RUIZ – AYUNTAMIENTO DE TUDELA
JOANA EGUILLOR FRANCOY	AYUNTAMIENTO DE BURLADA – BURLATAKO UDALA
JOSE Mª ASÍN ESCUDERO	AYUNTAMIENTO DE ZIZUR MAYOR
ARTURO PEREZ	AYUNTAMIENTO DE TUDELA
PATXI CHOCARRO	AYUNTAMIENTO DE URDAX
MARÍA SOLEDAD MARTINEZ CASPE	AYUNTAMIENTO DE AOIZ
PILAR MARTINEZ DE ORCOZ	AYUNTAMIENTO DE VIANA

KUDEAKETA	
Izen deiturak	Erakundea
JAVIER ESPINOSA OCHOA	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
ABEL DEL REY PALACIOS	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
ANA SARRADO ARAGÜÁS	EIN Arquitectura e Ingeniería Urbana
MARÍA CAMINO BARCENILLA TIRAPU	DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA
NURIA ÁLVAREZ AJURIA	DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA

## **4.-BILERAREN GARAPENA**

Nafarroako Gobernuko Kultura Zuzendaritza Nagusiko María Camino Barcenilla Tirapuk bertaratutakoak agurtzen ditu eta Javier Espinosa aurkezten du, Parte-hartze Prozesuaren koordinatzailea, EIN Hiri Arkitektura eta Ingenialaritzakoa, prozesuaren laguntza teknikoa.

Ondoren, EIN Hiri Arkitektura eta Ingenialaritzako Javier Espinosak bertaratutakoak agurtzen ditu eta prozesuaren azalpen orokorra burutzen du eta baita parte-hartzearen dinamikarena ere.

Ondoren Koordinazio Foruaren eratzearen gaineko proposamena aurkezten da, José Vicente Urabayenen eskutik (Eranskin gisa bidaliko da).

Ondoren bertaratutako pertsonak 3 talde ezberdinetan bereizten dira bileraren parte-hartzeari hasiera emateko, oinarritzat aurretik bidalitako galdetegia eta bileran aurkeztutako proposamena hartuta.

Azkenik hiru taldeetako bakoitzean landu diren arloen gaineko azalpena egiten da.

Ondoren agertzen dira parte-hartze erabakitze bileran egindako ekarpen nagusienak.

## **1.- KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ETA UDALETXEEN AREKO KOORDINAZIOA**

Aurkeztutako proposamena gai honi lotuta zegoela kontuan hartuta, proposamen honen inguruan eztabaidatu egin zen, honen inguruan planteatutako galderak oinarritzat hartuta gaiaren inguruko informazioa zabalduz eta osatuz. Laburbilduz, proposamenak Iruñeko Udaletxeko ordezkari teknikoen eta Kultura Zuzendaritza Nagusiaren arteko Koordinazioaren Foruaren sorrera planteatzen zuen (proposamen osoa erantsia izango da).

### **A.- ZEIN ARLOTAN DA GARRANTZITSUAGO ELKARLAN-KOORDINAZIOA?**

- Koordinazio Foruak lan egin beharko zuen arlo nagusiak honakoak izan beharko ziren:
  - Programazioa: Programazioa koordinatzeko, era globalean zentzua izan zezan, efizienteagoa izateko, diru-laguntzen inguruan informazioa eskaintzeko, etab.
  - Formazioa: Elkarlanari zuzendutako formazioa batez ere, beharrezkoa izan beharko zen formazioa eta hau nolakoa izango zen koordinatu eta ezartzea.
  - Hedapena: Elkar-hedapena koordinatzea, sortuko diren tresnen bitartez (Nafarroako Kultura Agenda) koherentzia emanez.
- Esperientzia ezberdinen arteko elkartrukeak ezarriko ziren Forua izan beharko zen, proiektu garrantzitsuenak, ahulenak, alde eta kontrako gaiak, etab. ezagutzeko helburuarekin.
- Landu beharreko berebiziko arloa lurraldean kultura politika zehatz bat ezartzea da, Zuzendaritza Nagusiak planteatutakoa oinarritzat hartuta era lurralde bakoitzaren zehaztasun eta beharrak kontuan hartuta.
- Lurraldetasunaren arloa landu beharko zuen Foruak, Nafarroako lurralde ezberdinek dituzten behar eta berezitasunak ezagutaraziz, hauek oinarritzat hartuta kultura politika eratuz.
- Foruak landu beharreko beste arlo bat Kultura Ekintzarena da.
- Liburutegien arloa landu beharreko arloen artean egon beharko zen, Zuzendaritza Nagusiak eskaintzen duen zerbitzua baita eta lurraldean duen oihartzuna handia izanda, teknikari lokalen artean koordinazio falta (askotan) nabaria delarik
- Oro har Foruak izaera teknikoa izan beharko zuela adosten da.
- Foruak komuneko kompetentziak dituzten arlo guztien inguruan lan egin beharko zuen.
- Foruak kideen arteko elkarlan eta koordinazio funtzioa izan beharko zuen.
- Forua organo egonkorra behar du izan, bere koordinazioaz arduratzen den pertsona jakin bat izan beha duelarik.
- Koordinazioa berebizikotzat hartzen duten arloen artean kultura erakunde ezberdinentzako berrikuntza eta programen hobekuntzarako aholkularitza zerbitzua dago.
- Urte askotan zehar koordinazio zerbitzua Nafarroako Gobernuak burutu izan du eta buruzagitza hori Gobernuak berreskuratu beharko zuela uste da.
- Alde batera utzita dauden diziplinak daudela uste da, hala nola ikusizko arteak, literatura eta baita ondare lokala ere.
- Koordinazio arloen artean informazioarena ere berebizikotzat hartzen da, informazioarenganako eskuragarritasuna hobetu beharra dago, batez ere kulturetze ezberdinetan programatzen diren ekitaldi eta jardunaldi ezberdinak ezagutzuz eta horrela gainjartzeak ekidituz.



## **1.- KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ETA UDALETXEEN AREKO KOORDINAZIOA**

- Programa eta diru-laguntzen inguruko koordinazio eta informazio gehiago eskatzen da, orain arte oso zentralizatuak egon baitira.
- Koordinazioak lurraldeko dimentsioa kontuan hartu beharko zuela uste da eta bere baitan eskualdekako mailan koordinazio sistema edukitzea bertako herri ezberdinen kultura dinamika koordinatuko zuena.
- Zenbait pertsonen aburuz arlo batzuek jada burutzen dute aipatzen ari den koordinazio hori era egokian eta hauek ez ziren instituzionalizatu behar betebeharrak gehiago sortuko lituzkeelako, bere lana oztopatuz.
- Hala ere, arlo jakin batzuetan izaera informaleko koordinazio sistemak aurrera egin dezaketean, beste zenbait arlotan koordinazioa ez da batere existitzen eta berebizikotzat hartzen da zehaztuagoak eta estrukturatuagoak egotea.
- Herri mailan eta bai udalerrri txikietan koordinazioa bereziki beharrezkoa dela uste da.
- Kultura arloan egun espektakulua eta entretenimendua gehiegi lantzen direla uste da eta beste kultura arlo batzuk alboratu direla ondorioz, batez ere erakargarritasun eta eskaera eskasagoak dituztenak.
- Bestalde, koordinazioaren beste arlo bat azpiegituren plangintza izan beharko zela uste da, lurralde mailan lehiakortasuna sortzen duena. Horrela, koordinazio horrek kulturetxeen beharrak ezartzea eta hauen jarraipena egitea ahalbidetuko zuen eta gertuko kultura zentroen diseinua ere.

## **B.- NORTZUK IZAN BEHARKO ZIREN PARTE BAKOITZAREN SOLASKIDEAK?**

- Alde batetik, Foruak izaera teknikoak izan beharko zuela uste da, eta herri mailan, Kultura Koordinatzailez eta beste ordezkari osatua egon beharko litzateke, herri hauetan Koordinatzailearen postua existituko ez balitz. Kasu honetan ordezkari politikoek parte hartze posible izango zuten, baina soilik gaiaren gaineko teknikorik ez balego, eta betiere Foruaren izaera teknikoak errespetatuz.
- Kultura Zuzendaritza Nagusiaren aldetik pertsona teknikoek osatuta egin beharko litzateke. Alde batetik behin-betiko langileak egon beharko ziren Forua koordinatzeko, eta bestetik, arlo ezberdinetako teknikariek parte hartu zezaketean, betiere memento jakin horretan landuko ziren gaiak kontuan hartuta.
- Erabateko garrantzitsua izango zuen, foruaren izaera teknikoaz at, honenganako konpromezu politikoa. Hau berebizikoa da, burutzea ahalbidetuko duena izango baita. Konpromezu politikoa Foruaren bi aldeetatik bermatua egon beharko zen (udalerrien / eskualdearen parteak eta Gobernuaren parteak).
- Foruko parte-hartzaileak bai teknikariak bai politikariak behar dute izan.
- Sailak herri txikien aholkularitza bere gain hartu beharra du.
- Beste pertsona batzuen aburuz parte-hartzaileak udalerriak eta Kultura Zuzendaritza Nagusia izan beharko ziren. Udalerrien kasuan, bai teknikariek bai politikariek parte hartu beharko zuten. Kultura Zuzendaritzari dagokionez, parte-hartzaile egokiena baliabide eta garapen estrategikoko saileko ordezkariak izango ziren.

<p><b>1.- KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ETA UDALETXEEN AREKO KOORDINAZIOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kultura sormeneko sail eta erakundeekiko koordinaziorako bideak sortu beharko ziren integrazioa bultzatzeko helburuarekin.</li> </ul>
<p><b>C.- KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ETA UDALETXEEN ORDEZKARIEZ GAIN, ELKARLANETAN ZUZENEAN PARTE HARTU BEHARKO ZUTEN BESTE AGENTERIK AL DAGO?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Orokorrean era jarraian beste agenterik parte hartu beharko zuenik onartzen da, beti ere memento jakin batean lan talde zehatzak antolatzea onartzen bada ere, eta behar eta arloekin zerikusia dutenean, kultura munduko ordezkariak parte har zezaketen (elkartek, artistak, enpresak, etab.).</li> <li>▪ Foruaren azken eginkizunaren arabera, gai hori Foruaren baitan adostea eta erabakitzea planteatzen da.</li> <li>▪ Udaletxeetako teknikariak Elkarteekin kontaktuan egon beharko ziren herrietan y Foruan proposamenak teknikariek egitea.</li> <li>▪ Musika Eskolak eta Antzerki Sarea bertan egotearen aukera aipatzen da.</li> <li>▪ Elkarte eta kolektiboekin elkarlanerako bideak sortu behar dira.</li> </ul>
<p><b>D.- ZEINTZUK IZANGO ZIREN ZUZENDARITZAREN ETA UDALETXEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO BIDE ETA TRESNA EGOKIENAK?</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Foruaren bileren izaera fisikoki lekukoa izan beharko zen, gai ezberdinak sakontasunean landu ahal izateko parte-hartzailez osatuta.</li> <li>▪ Foruak online tresna osagarri bat izan beharko zuen, intranet erakoa, laguntza eta lan tresna izango zena.</li> <li>▪ Adostutako egutegi baten antolatzea bilerak eta landu beharreko gaiak planifikatzeko.</li> <li>▪ Foruaren antolakuntza seihilabetekoa izan litekeela aipatzen da, bi bilera burutuz, hauetariko bata plangintzarako eta bigarreanean aurreko bileran adostutako gaien jarraipena egiteko.</li> <li>▪ Foruaz gain lurraldearentzat eskualdekako koordinazio sistema beharrezkoa zen, Foruarekin artikulatu egingo zena. Koordinazio orokorrak tokian tokiko koordinazioa ordezkatzeko ekiditu beharko zen.</li> <li>▪ Interesgarria litzateke teknikaririk ez duten herrientzat komuneko teknikari postua sortzea, mankomunatu zitekeen postua izanda.</li> </ul>

<b>2.-PARTE-HARTZEA</b>
<b>A.- NAFARROAKO LURRALDE EZBERDINETAN KULTURA ARLOEN INGURUKO PARTE-HARTZE PROZESUEI JARRAITASUNA EMAN BEHARKO ZITZAIEN?</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Orokorrean kulturari dagokionez parte-hartze prozesuei dagokienez hauen jarraikortasunaren alde egiten da, lurraldekako partaidetza bereziki azpimarratuz, nolabait positiboki baloratutako esperientziatzat hartu izan dena.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Jarraikortasuna egokia litzateke ikusgarritasun handiagoa eskaintzen duelako eta baita lurralde barruan ematen diren proiektuei ere.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Lurraldekako parte-hartze bilerei jarraikortasuna ematea bai lan lantzen diren gaien gaineko "kontrola" ezarri, bertako parte-hartzaileei itxaropen hutsak ez sortzearen.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Parte-hartze bileretan burutu daitezkeen gai zehatzak landu behar dira.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Emaitzak kudeatzeko tresna bilakatu beharko zen Forua. Proposamen eta proiektu ezberdinen aukerak kudeatu eta ebaluatzeko.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Beharrezkotzat hartzen da maila tekniko eta politikoan ekintza hobetzen baitu.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Parte hartzeak prozesu hauen erabilgarritasuna ikusgarri egitea beharrezkoa da herritarrek haien ideiak zertarako balio izan duten ezagutu dezaten, hau dela eta berebiziko garrantzia dauka itzulera fasea zaintzea eta goraiatzea.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Hiritarren arteko Parte-hartze kultura bultzatzea oso garrantzitsua da komuneko kudeaketara batera bideratuz.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Parte-hartzeak dituen mugen inguruan herritarrei behar bezalako informazioa eskaini behar zaie, prozesu hauek sortu ditzaketan itxaropen eta nahiak direla eta.</li> </ul>
<b>B.- LURRALDEKAKO PARTE-HARTZE PROZESUAK LAGUNTZEKO ZEIN TRESNA EZARRI BEHARKO ZIREN?</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskualdeko Parte-Hartze Foruen metodologia egokia da, izan ere, eskualde ezberdineko ahotsak eta hauen beharrak entzutea ahalbidetzen baitu.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Web orrialdearen bitartez proposamenak jasotzea, izendatuko den Foruaren koordinatzailearen eskutik. Pertsona honek eskaera eta iradokizunak behar diren Saitetara Zuzendu beharko ditu era beharko zuten korreoei erantzutea.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Adostutako egutegiaren arabera proposamenen kudeaketa.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Landu behar diren inguruan tresnak moldatu beharko ziren, era honetan irekiagoak edo itxiagoak edota zehatz edo zabalagoak izanda.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Foru sektorial eta eskualdekako Foruen sorrera aipatzen da.</li> </ul>
<b>C.- NORK KOORDINATU BEHAR DITU PARTE-HARTZE PROZESUAK?</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kultura Koordinatzaile eta Kultura Zuzendaritza Nagusiaren arteko koordinazioa beharrezkoa da, haiek baitute lurraldeko ezaguera.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kultura teknikaririk ez duten herrietan Kultura Zinegotziak bere beharko zuten Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin koordinatzeko betebeharra.</li> </ul>

## **2.-PARTE-HARTZEA**

- Foruaren Koordinatzaileak bertaratu beharko ditu organismo horri zuzendutako eskaera edota iradokizunak.
- Lurrealde mailan koordinazio funtzioa Kultura Zuzendaritza Nagusiak burutu beharko zuela uste da, herri mailan udaletxeek funtzio hau bete beharko zuten heinean.
- Parte-Hartze prozesu publikoetarako langile profesionalak kontratatzea berebizikoa dela uste da.

## **5.-LABURBILKETA ETA AGURRA**

Behin lan dinamika amaituta Parte-hartze teknikariak bileran parte-hartu duten pertsonei eskerrak ematen dizkie eta hurrengo parte-hartze tailerretan parte-hartzera gonbidatzen ditu, baita Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiko web orrialdea eta [participacioncultura@navarra.es](mailto:participacioncultura@navarra.es) mailaren bitartez ere.

Parte-hartzaileei ebaluazio galdetegia betetzeko eskatu ostean, dokumentuaren borradorearen osaketaz informatzen zaie hau irakurtzeko inork bertan zuzenketarik egin nahi izango balu.